

ekainaren 16a, 20 urte geroago. Inork gogoratuko ote du data hau». Bloomsday eguna Bloomsday festa bihurtuko zen arrasto gutxi orduan egileak.

Aldaketa data 1982an kokatzen du James Traynor James Joyce Zentroko zuzendariak. «Joycek basatzen eman zituen hamarkadak. Sekula ez zen izan ofizialki debekatutako autore bat... figura periferikoa izan zen. 1982an aldatu zen horrek zuen esanahia, haren jaiotzaren mendeurrenean, Bloomsday egunarekin bat egiten zuen hari buruzko sinposio handi bat antolatuta zenean. Mundu osoko jendea erakarri zuen, eta, sinposio akademikoa izan zen arren, esfortzu berezia egin zen ibilaldiak antolatuta eta jendea bide ez-akademikoetatik ere erakartzeko».

Euskal Herrira batera heldu dira aurten Joycerne eleberria ospatzeko festa eta Joyceren eleberria euskaraz irakurtzeko aukera. Izan ere, 2012an hasi zuen Xabier Olarra itzultzaileak *Ulises* itzultzeko odisea, eta iaz kaleratu zuen Igela argitaletxeak lana euskaraz.

PASARTE HAUTATUA

James Joyce *Ulises*

[...]mduan sekula izan den mixerabeena beti beldurrez 4 penike likore metilikodunean gastatzeko neri bere ajeak kontatzean kontua eta xaborra franko politika eta lurrikarak eta munduaren azkena utzigun aurrena pixka batean dibertitzen emakumea Jainkoak goarda emakume guztiak béra bezalakoak balira akabogure bainujantzi eta eskote zabalak inork béra halakoekin ikusi nahi ez zuenak noski nik uste inongo gizonen sekula bi aldiz begiratu ez ziolako zela elizkoia ez ahal naun sekula béra bezalako izango harritzeko gure aurpegiak estaltzea nahi ez izatea baina buruz jantzia zunan emakumea dudarik gabe eta aze kala-ka ematen ziguna Riordan jauna gora eta Riordan jauna behera nik uste gizona pozik egongo zela ematzeaz eta béraen txakurrakz libratu zenean han ibiltzen baitzen beti nere larruei usnaka eta azpiko gonan azpitik sartzeko ahalegintan [...]

Itzultzailea. Xabier Olarra.
Argitaletxea. Igela.

Poesia elektromunduglobalean

Alex Gurrutxaga

Jorge Oteizak artearen ildo bi bereizi zituen behin. Bere ustez, ildo batean –Cezanne, Picasso, Oteiza bera– ikerketa objektuaren gainean egiten zuten; bestean –surrealismoa, Dada, Duchamp– garapenera gunea pertsona zen. Lehen ildoak pertsona berria sortu nahi zuen; bigarrenaren xedea, berriz, hura esnatzea zen. Eta interesgarriena: lehen ildoak, pertsona eraberritu nahi zuen hura, bukatua zegoen 60ko hamarkadarako; al-diz, bigarrena ez zen Oteizaren ustez inoiz bukatzen, eta pertsona esnatu nahian jarraitzen zuten beti, eta bereziki aro garaikidean, gizarite posmoderno lokartuan.

Oteizaren banaketa bitarra onartuz gero, Eric Ditzarriren lana bigarren ildoan jarri beharko genuke. Hemen ez dago poesiari poesiaren gainean egina dago. Pixka bat absurdoa ematen badu

ere, garrantzitsua da hori kontuan hartzea. Zergatik? Ba, lehen ildoan lan bat dela onartuko bagenu, liburuaren literatur balioa hutsaren hurrengotik nekez pasatuko litzatekeelako. Tradizio poetikoa, erretorika, egituraketa... horretatik ezer gutxi dago hemen. M. Ibarguren, J. L. Padron edo K. Uriberen –bere garaitsuko hiru poeta bakarrik aipatzearen– antipodetan legoke alde horretatik Ditzarr



'Errudun'
Egilea: Erik Ditzarr.
Argitaletxea: Maiatz.

ri, eta are urrunago L. Garde, M. A. Meabe edo G. Markuleta bezalako egileetatik.

Ditzarrrik «konzeptualizazioan atxeman» nahi luke «literaturaren esentzia», poesia aipamen baten «esentziaren ikerketa besterik ez» delako. Fragmentarioa da erabat haren hizkera; arina; justaposizioa, zerrenda eta paralelismoa nagusitzen dira, apenas bestelako errekurtsorik; puntuazioirik ez dago ia; etengabeak dira jerga anglo-merkantilari egindako erreferentziak (*Paradoxa baten epizentrotza*, adibidez); ironikoa da (*Ospearen izenean*, adibidez).

Inork esango du beste poetikotasun bat dela honakoa, klasikoa ez den poetikotasuna dela, apurtzailea. Baina noizbait galdetu beharko dugu hau ere: noiz arte izango da poetika postmodernoren eklektizismo-pop-pastiche eta abar hori guztia berritzailea? Zenbat urtek pasatu behar du Andy Warholen heriotzatik (ia 30 dira jada), esan dezagun forma

poetiko hori ez dela jada berritzailea? Egundak 1. pertsonako narratzailea, poesia narratiboa, fragmentarismoa eta beste hainbat ezaugarri hain ezagun direnean, ez ote da –poetikoki– iraultzaileago soneto bat pastiche bat baino? «Elektromunduglobalean» bizi gara (Ditzarrirrena da hitza), kultura osatzen duen amalgama bere adar orotan merkantilizatu eta kolonizatu dago, eta Ditzarrrik hori islatzen du. Efektu apurtzailea eragiten duena horixe dago hain justu: artearen irudi auratikoa birrintzen du egileak, elektro-mundu-globala poesian txertatuz, poesiaren erretorika eta misterioa goitik behera botaz.

Ematen du Ditzarrirren poesiaren helburua epatatzela dela eta, Oteizaren banaketa bitarra berreskuratzuz, pertsona esnatzea. Horregatik, zaila iruditzen zait arte poetikoari materia poetikoaren lanketa eskatzen diona liburu honek asetzela. Bestalde, ordea, nola gustatuko zitzaion, ba, M. Duchampen *fontaine*-a iturrien edertasuna eta lanketa maite zitenari? Edo, behintzat, ez zitzaion gustatuko iturri gisa. Esnatu, halere, esnatu zuen komun aldrebese hark. Halaxe, akaso, Ditzarrirren *Errudun*-ek.

Erretratugilea

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

Imanol Mercero

Hirurogei orrialdeko narrazio luzetxo da, zazpi ataletan banatua, eta zuri-beltzeko zazpi irudirekin hornitua datorrena.

Izenak iradokitzen duen bezala, protagonista arabiar jatorrikoa da, neskato bizia, bere begi handiak bezala, azkarra, bere izter motzen antzera, eta bihotz onekoa, irakurleok desiratzen dugun eran.

Erraz irakurtzen den abentura domestiko bat kontatzen zaigu, protagonistak eta bere lagun Sbet eta Mbore-k bizi izandakoa. Egia esan, abentura izatera iristen ote den zalantzarikoa da. Besterik gabe euren auzoko baten jokabide misterioetsuaren zergatiaren ikerketa da istorioaren motorra. Halere, garrantzitsuena, ira-

kurketa amaieraraino eramaten laguntzen duena, beste zerbait da: pertsonaien erretratua. Nire kasuan hala izan da, eta nire inguruko haurrarena ere bai. Hasiarik Nahla eta bere mundua egin zaizkigu interesgarri, eta hari begira, zertan ari den begira pasatu zaizkigu orrialdeak. Hain da xarmagarria haurra, hain bizia, hain...! Plazera sentitu dut beste ezerean gainetik istorio xume honenkin, eta itxaropena ere bai, euskal letretara erretratugile fin bat ote datorkigun sinistuta.



'Nahla'
Idazlea: Imanol Mercero.
Itzultzailea: Ainara Azpiazu, Axpi.
Argitaletxea: Ibaizabal.

Uste baino gehiago

HAUR ETA GAZTE LITERATURA

I.M.

Badira gure memorian mordoaxka bat literatura lan unibertsal pantailatik iritsi zaizkigunak. *Bambi* (1926), *Pinotxo* (1883) eta *Heidi* (1881), esaterako, liburu bidez jende gutxi eza gogatu ditu.

Berdintu esan liteke Oz-eko aztiari buruz. Gehiegi dira inauterietako mozorroen estereotipetatik jaso dutenak obra honi buruz dakiten guztia.

Interesa ere gutxi nabaritzen da. Jendea, nonbait, jada bada-kiela iruditzen zaio, «ikusia» duela. Oker. Bai Bambi, bai Pinotxo, bai eta Oz-eko aztia ere, uste baino mami handiagoa dute, uste baino plazer eta mezu gehiago.

Demagun Oz-eko aztia. Igerabideren itzulpenaren ego-kitasuna beste baterako utzita,

narrazioa ongi idatzitako gutzia bat da. Ongi idatzitaz jotzen badugu, bederen, pertsonaien konplexutasun psikologikoa (bai, txorimalo burugabeak ere badu halakorik!), kontaketa garrantzitsua, eta mezuaren, istorioaren eta xede irakurlearen artean dagoen sintonia.

Funtsean, Baum-ek obraren aitzinsolasean aitortzen duen gisara, amandre ipuin moderno bat da, haurren entretenigarri bezainbat haurren hezigarri.



'Oz-eko azti harrigarria'
Idazlea: L. Frank Baum.
Itzultzailea: Juan Kruz Igerabide.
Argitaletxea: Denonartean.